

Mendekotasunar buruzko gida praktikoa

Bermaturiko zerbitzu eta prestazioak



Mendekotasuna aitortzeko eta bermatutako zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko prozedura

1 **Mendekotasunaren balorazioa eskatzen dut**
Une honetatik aurrera, zerbitzuak
eta/edo prestazioak aukeratzen ahalko ditut
(Banakako Arreta-Programa).

2 **Gutun bat jasoko dut, etxean balorazioa
egiteko hitzordua dakarrena.**

3 **Gutun bat jasoko dut, mendekotasun-
graduaren ziurtagiria dakarrena.**

4 Oraindik aukeratu ez badut, Banakako Arreta-
Programa bat aukeratu behar dut: **prestazio
ekonomikoak eta/edo zerbitzuak aukeratu
behar ditut.**

Prestazio eta zerbitzu guztiak mendekotasun-mailaren
eta gaitasun ekonomikoaren arabera dira.

5 **Prestazioak eta zerbitzuak ematea.**

**Izapidetzeko gehieneko denbora:
6 hilabete**

Mendekotasun maila



I. GRADUA > **Mendekotasun moderatua**

Norbanakoak laguntza behar du eguneroko zenbait jarduera egiteko, gutxienez egunean behin.



II. GRADUA > **Mendekotasun larria**

Norbanakoak laguntza behar du eguneroko zenbait jarduera egiteko, egunean bizpahiru aldiz.



III. GRADUA > **Mendekotasun handia**

Norbanakoak laguntza behar du eguneroko zenbait jarduera egiteko, egunean hainbat aldiz, erabat galduak dituelako autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala.

ZERBITZU eta PRESTAZIO bermatuak mendekotasuna dagoenean

Bat edo bat baino gehiago aukera ditzaket.
Prestazio eta zerbitzu guztiak mendekotasun-mailaren eta gaitasun ekonomikoaren arabera dira.

Telelaguntza edo “medailoia”

Egunean 24 orduz konektaturik egoteko gailu bat da, laguntza eskatzeko balio duena..

Kostua: kosturik ez, edo hileko gehienez

- 6,59 euro (mendekotasun larria edo mendekotasun andia) edo
- 7,30 euro (mendekotasun ertaina).

Autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko Zerbitzua

Egoera fisikoa, gaitasun kognitiboa eta eguneroko jarduerak hobetzeko jarduerak.
Doako zerbitzua da.
Hilean 8 orduetik 20ra arteko arreta.



Udalaren Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua (ELZ)

Udaleko laguntza-zerbitzuek ematen dute zerbitzu hori, norbanakoari eguneroko oinarrizko jarduerak egiten laguntzeko bai etxean, bai etxetik kanpo.

Familiartean zaindua izateko prestazio ekonomikoa

Mendekotasuna dutenak etxean eta familiartean zaindu eta laguntzeko prestazio bat da.

	MEDEKOTASUN MODERATUA	MEDEKOTASUN LARRIA	MEDEKOTASUN HANDIA
GEHENIEKO zenbatekoa	180,00 euro	407,21 euro	542,85 euro
GUTXIENeko zenbatekoa	100,00 euro	180,00 euro	249,44 euro

Familiarteko zaintzaileak Gizarte Segurantzak ezarritako baldintzak betetzen baditu, badu aukera mendekotasun-egoeran daudenen zaintzaile ez-profesionalen hitzarmen berezia izateko.

Zaintzaile profesional bat eta/edo zerbitzu-enpresa bat kontratatzeko prestazio ekonomikoa

Prestazio hori zaintzaile profesionalak eta/edo etxeko etxeko laguntzarako enpresak kontratatzeko laguntza bat da, hilean gutxienez ordu hauek kontratatzen direnean:

- 80 ordu edo gehiago (mendekotasun handia edo mendekotasun larria).
- 60 ordu edo gehiago (mendekotasun moderatua).

	MEDEKOTASUN MODERATUA	MEDEKOTASUN LARRIA	MEDEKOTASUN HANDIA
GEHENIEKO zenbatekoa	448,77 euro	894,66 euro	1.130,55 euro
GUTXIENeko zenbatekoa	207,12 euro	395,43 euro	519,49 euro

Laguntza pertsonala kontratatzeko prestazio ekonomikoa

Laguntza pertsonaleko zerbitzu bat kontratatzeko laguntza. Bizimodu Independenterako Bulegoan “Bizimodu Independenterako Proiektu” bat egin behar da.

Eguneko arreta-zerbitzua edo eguneko zentroa

Jarduera terapeutikoak eskaintzen dira bizi-kalitatea eta familia-laguntza hobetzerren.

09:00etatik 17:00etara arte eman ohi da arreta (egun osoa). Egun erdia joateko aukera ere bada.

Gehieneko ordainketa: 315,5 euro/hileko (egun osoa) edo 160,00 euro/hileko (egun erdia).*

Bada aukera garraio egokitua eta/edo lagundua eskuratzeko eguneko zentrora joateko (koordainketako zerbitzua da).



Egoitza-zerbitzua

Egoitza batean egotea arreta integrala izateko.

- Gehieneko tarifa: 1.460,47 euro hilean.*
- Behin betiko eta aldi baterako egonaldiak.

* Tarifa soziala, 65 urtetik gorakoendako.

Informazio gehiago



Eguneko zentroak eta egoitzak:
Zentroa hautatzen ahal da, norberak zer nahiago duen aukeratuz.



Egoitza bat erabiltzen ari bazara eta zure etxea Nafarroako Gobernuaren bidez alokatu nahi baduzu, deitu 848 426 900 telefonora.



Mendekotasuna duten pertsonak onura fiskalak dituzte.

Autonomiarako eta Irisgarritasunerako Laguntza Produktuen Zentroa

Aholkularitza eta informazioa ematen da etxea egokitzeko eta irisgarriago egiteko dauden produktuei buruz.



Erreginaren aldapa, 3

31011 Iruña

Tel.: 848 425 055

centrodeproductosdeapoyo@navarra.es

www.nafarroa.eus

Gobierno de Navarra
Departamento de Derechos Sociales,
Economía Social y Empleo



Nafarroako Gobernua
Eskubide Sozialetako, Ekonomia
Sozialeko eta Enpleguko Departamentua

González Tablas kalea, 7 • Iruña

Tel.: 848 426 900

info.derechossociales@navarra.es
